



Esp.kodea: 2017AAUK0007

Gaia: UDAL IGERILEKUA ERABILTZEKO
HITZARMENA SINATZEA
Hasiera eguna: 2017/03/28

HITZARMENA

ARRASATEKO UDALAREN ETA ARIZMENDI, KOOP. ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Arrasaten , 2017ko martxoaren 30ean

BILDURIK

ALDE BATETIK, Maria Ubarretxena Cid, ARRASATEKO ALKATEA.

ETA BESTETIK, ARIZMENDI, Kooperatiba Elkartearen izencan (aurrerantzean ARIZMENDI ikastola) eta ordezkartzan Joseba Iñaki Etxezarreta Alberdi.

ADIERAZITAKOA

ARIZMENDI ikastola LANBIDE Euskal enplegu zerbitzuaren zentru laguntzailea da, 71139-009 kodigoarekin.

Hori horrela, besteak beste, Gaitasun Ziurtagiriak lortzeko beharrezko prestakuntza ematen du.

Aipaturiko Gaitasun Ziurtagiri horien artean, honako hauek eskainiko ditu:

- AFDP0109 Ur-Instalazioetako sorospena.
- AFDA0111 Uretako fitnessa eta hidrozinesia.
- AFDA0310 Igeriketa-Jarduerak.

Gaitasun Ziurtagiri hauek eskaini ahal izateko ezinbesteko baldintza da prestakuntza-erakundeek, kasu honetan, Arizmendi Ikastolak, horretara beharrezko diren instalazio eta baliabideak erabilgarri daudela egiaztatzea. Hiru Gaitasun Ziurtagiri hauetan igerilekua erabiltzea ezinbestekoa da

ARRASATEKO UDALA Musakolako kiroldegia jabea da eta bere erabilpena hirugarren bati uzteko ahalmena du. Udalak eskumenak du (2/2016 Legearen 17.19) artikulua arabera, erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzeko eta 7/1985 Legearen 26.c) artikulua arabera, kirol instalazioak udalek eman beharreko gutxieneko zerbitzua da.

Hori horrela, Arrasateko Udala eta ARIZMENDI Ikastolaren artean honako hauek hitzartu ditugu:

LEHENENGOA:



Esp.kodea: 2017AAUK0007

Gaia: UDAL IGERILEKUA ERABILTZEKO
HITZARMENA SINATZEA
Hasiera eguna: 2017/03/28

ARRASATEKO UDALAK Musakolako kiroldegiko igerilekua erabiltzen utziko dio ARIZMENDI ikastolari honek LANBIDEko Gaitasun Ziuertagiriak lortzeko beharrezkoa den prestakuntza ematen duenean.

BIGARRENA:

Gaitasun Ziuertagiri horiek honako hauek izango dira:

- AFDP0109 Ur-Instalazioetako sorospena.
- AFDA0111 Uretako fitnessa eta hidrozinesia.
- AFDA0310 Igeriketa-Jarduerak.

HIRUGARRENA:

Akordio honek 3 urte iraungo du.

LAUGARRENA:

Igerilekua erabiltzeak koste ekonomikoa izango du ARIZMENDI ikastolarentzako momentu bakoitzean, indarrean dauden udal tasen arabera zehaztuko dena. Gutxienez, pertsonako sarrera ordaindu beharko da erabileraren eguneko eta igerilekuaren erreserba prezioa.

BOSGARRENA:

Alde biek bermatuko dute instalazio eta baliabideen benetako erabilgarritasuna prestakuntza-ekintzak egitean. Honetarako, ARIZMENDI ikastolak, 2 hileko aurrerapenarekin, ARRASATEKO UDALARI idatziz eta sinatuta eskatuko dio prestakuntza-ekintzaren ordutegia eta alde biek adostuko dute ordutegirik egokiena, kiroldegiko jarduera lehenetsiz.

ARIZMENDI ikastolak erreserba bertan behera utzi ahalko du, beranduenez ekitaldia baino 7 egun lehenago. Epe hori gaindituz gero, erreserbari dagokion udal tasa ordaindu beharko du.

SEIGARRENA:

Eskatzaileak aseguru baimen egokia izan beharko du.

ZAZPIGARRENA:

Udalaren instalazioen erabileraren araudia bete beharko du eskatzaileak uneoro eta prestakuntza saioak ematearen ondorioz, udal instalazioek edo materialak kalterik izanez gero, kalteak ordaindu beharko ditu.

Alde biek onartzen dute Lanbidek egin ahal dituen egiaztapen-jarduketak.

ZORTZIGARRENA:

Hitzarmenaren jarraipenerako batzordea osatuko da bi aldeek ordezkaritza batekin.

BEDERATZIGARRENA:

Araudi aplikagarria, erabilerari aplikatuko zaio Arrasateko Udala Kirol Instalazioen Araudia eta udal ordenantza fiskalak eta hitzarmenari 39/2015 Legea, 40/2015 Legea, eta aplikagarri gerta daitekeen araudi administratiboa.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Kirola ■

Esp.kodea: 2017AAUK0007

Gaia: UDAL IGERILEKUA ERABILTZEKO
HITZARMENA SINATZEA
Hasiera eguna: 2017/03/28

Alderdi biak konforme daudelarik, hitzarmen hau bikoiztuta sinatzen dute,

ARIZMENDI ikastolaren izenean

Joseba Iñaki Etxezarreta Alberdi

Arrasateko Udalaren izenean

Maria Ubarretxebea Cid



di arizmendi
Koop E

16